

BAGABILTZA

LHK-ko euskara-planaren buletina

Argazki lehiaketaren IV. edizioa, bikaina!

Usaia bihurtu da Lan Harremanen Kontseiluan Udako Argazki Lehiaketa antolatzea. Aurtengoa IV. edizioa izan da, eta berezitasun txiki bat izan du bere baitan: Euskal Herria erretratatzeko duten argazkiak ziren lehiaketan parte hartzerako deituta zeuden artelanak. Hori horrela, argazki-kamera eskuan, gure herriko txoko eta bazter miresgarrienak erretratatzeko ibili da gutako bakoitza.

Guztira, 38 argazki hartu dute parte txapelketan, eta urriaren 2an aurkeztu ziren guztiak, sarituak jakinaraztearekin batera. Bozka gehien jaso dituen argazkiaren izenburua **Norbaitek ispilu bat utzi zuen hondartzan** da, eta argazkilaria, Nerea Elguezabal. Bigarren eta hirugarren sarituak Asier Aldaiturriaga eta Leire Idirin izan dira.

Ale honen azken orrialdean daude ikusgai lehiatu diren hainbat argazki.



HITZEN ARRANTZA

Errekan barrena, beltzez dauden hiru hitz hauekin bat egiten duten hitzak arrantzatu behar dituzu! Hirurak dira gure eguneroko lanean erabiltzen ditugun terminoak:

 **INTERLOCUTORA**

 **VIGENCIA**

 **ADJUDICATARIA**

Hitzen gainean klikatuz, beren esanahia eta testuingurua ikusi ahalko dituzu:

[HORNITZAILE](#)

[INDARGABETZE](#)

[SOLASKIDE](#)

[IRAUNGIPEN](#)

[INDARRALDI](#)

[IDAZKARI](#)

[ATALASE](#)

[JAULKITZAILE](#)

[ESLEIPENDUN](#)

[DEITZAILE](#)

EUSKARAREN BIDEAN TOPO EGINEZ

Emilia Málaga

Zazpi urte pasa dira Lan Harremanen Kontseiluak euskararen erabilera normalizatzeko lehen plana martxan ipini zuenetik, eta lortutako emaitzekin pozik gaudela aitortzen dut.

Gure lan-eremuan maila desberdinetako euskal hiztunak daudenez, elebitasunaren aldeko apustuak funtzionatzen du. Errezeta ez da zaila: elkar ulertu nahi dugu eta ez dugu ahazten hizkuntzak komunikatzeko daudela, ez hormak altxatzeko.

Ikuspegi partekatu honetatik, batzuek haien ongizate-zonatik ateratzeko ahalegina egiten dute egunero, eta beste batzuek ahalegin horiek ulertzen eta errazten dituzte.

Filosofiaz aparte, gauza ukigarriagoak ere egiten ditugu, noski: batzordeak, galdetegiak, inkestak eta abar, euskara nola erabiltzen dugun jakiteko. Beharrezkoak dira, baina inportanteena hizkuntzak elkar aurkitzeko bideak direla ez ahaztea da.

Euskararen bidean topo egiten jarraituko dugu.



URRIA 2025 | XVIII. ZENBAKIA

